



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-09-13

VILURTEA 1.775 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



30 postu inguru jarri zituzten Errebote plazan. A. IMAZ

JENDETZA ETA GIRO POLITA ELIKAGAIEN AZOKA BEREZIAN

VILLABONA Ramirez Ardoak etxeak eman zuen postu onenaren saria; Isats Gisatuaren Lehiaketa Zizurkilgo Ibaitez elkarteak irabazi zuen 6

Eskualdeko arraunlariak gaurko finalerako sailkatu dira

ARRAUNA Atzoko proban Tolosa-Getaria nesken traineruak bigarren denborarik onena egin zuen 6



Atzoko Zizurkilgo asto karreraren une bat. A. IMAZ

Gaur amaituko dira jaiak Kalebeheran eta Zizurkilen

JAIK Atzo blusak izan ziren protagonista Zizurkilen; Alegian, berriz, bertsoa eta kirola 4

Inglesa

Txinera

Frantsesa

Errefortzu eskolak

Alemana

elduaien
Ikuskeria

40 urteko **ESPERIENTZIA** eta **KALITATEA**
2009-10 ikasturtearen hasiera: **IRAILAREN 1a**

URRIAK 1ean akademia berri bat irekiko dugu
Tolosan: Gorosabel kaleko 40. zenbakian

Ongi etorria izango zara informazioa jasotzeko edo izena emateko:
943 67 47 33 - 943 65 23 72

Welcome! Willkommen! Bienvenu!





» Uzturretik

Iratxe Etxebeste

Ez dakit errealtatea den edo errealtatetik atera eta errealtate berri bat eraikitzeko ikusten dudana ezintasuna, eguna joan eguna etorri gero eta gehiago mintzen, tristetzen nauena.

Eusko Jaularitzako gobernu berria indarrean denetik atzera egiten ari da herri hau nabarmen, hiz-

kuntzari, kulturari, giza eskubidei, eskubide politikoei eta beste hainbat eskubideri dagokionean. Eta ebidentea dena ukatzerik ez dagoen bezala, errealtate soziologikoa ezin denezukatu, zurrumbilo horretan gabiltza: nork nor mende hartuko. Argudio politikoekin balitz gaitz erdi, baina inposaketaren bidea aukeratzen denean denoi sortzen zaigu arbuio moduko bat, lehenago edo beranduago agerian geratzen dena, besterik ezean, besterik geratzen ez zaigulako.

Presoen argazkien harira sortu

Errealtatea

den borrokan, esaterako. Batzuek estali egin nahi dute badela euskal preso politikoen alde lanean dabilen jendea. Herrietan, hirietan haien argazkiak jartzen direla, arrazoi bategatik edo besteagatik kartzelan daudenekiko errespetua eta begirunea adierazi nahi dutelako. Estali, ukatu eta zigortu egin nahi dute haiekiko elkartasun ekintza oro, eta inpunitate osoarekin egiten dute, gainera: indar polizia eta judizialak erabiltza.

Besteek, bitartean, «maite zaituztegu» aldarrikatzen dute. Ahal duten moduan, uzten zaien mo-

duan. Eta zentzu horretan gauzak gero eta gordinago daudenez, bide berriak urratzen ari dira.

Facebook-en preso guztien perfilak jartzeko deia egiten duen mezu elektronikoa bat jaso dut aste honetan bertan. «Lagunak, maitasuna, senideak eta sentimenduak debekatu ezin direnez, Facebook-en ere lagunak eta senideak ditugula esateko ez dugu inolako lotsarik. Horretarako, ordea, Facebook-en egon behar dute euskal preso guztien perfilek, eta beraiek sartu ezin dituztenez, kalean gauden lagunak eta senideok sartu be-

harko ditugu». «Erraza da» esan, eta orrialdeak sortzeko urrats batzuk zerrendatzen dira jarraian. Eta benetako posta kontua erabiltzeko gomendioa egiten, jaso litezkeen mezuei erantzun ahal izateko.

Presoa aske geratzen denean, berriz, bere orrialderasartzeko pasahitzak eta gainerakoak emango omen zaizkio, «goitik behera ezabatu ahal izateko, bere modura eguneratzeko edo nahi duenerako».

Ekimena ez zait berez harrizkoa iruditu, baina oroitzen naiz hogeitaka urte itzalean daudenekin. Izan ere, iraultza teknologikoa zer den ere ez dakitenei nola azaldu zer den Facebook?

▣ Lehen eta orain



Ibarrako sarrera hainbat hamarkadaren ondoren



Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAk Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

KONDEKO ALDAPA, 5 • 20400 TOLOSA
TELEFONO: 943 67 00 40 FAXI: 943 670719
WWW.FUNERARIIVASCONGADA.COM

ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

» Iritzia

Jokin Bildarratz
Tolosako alkatea

Naturarekin bat egin da jai, hazi, bizi eta utzi gaitu Jose Mari Agirrek.

Jaio diot, hainbeste maite zuen Aitzarte inguruko haitzez babes-turiko, Aralarreko ate den Atauen, ama lurrairen gaien artean, Euskal Herriaren misterio eta kondairaz betetako Aizkorondo etxean. Inguru zoragarri, indartsu eta denboratik kanpo dagoen zati horren parte izan zelako.

Azkeneko urteetan, zenbatetan etorri zen gure bileretara mendi eta baserri arrastoekin; izugarriko osasun kolorearen jabe, arnas lasai, eta bere patxada borobil harrekin. «Baserritik nator...», esanez.

Hazi, senidez inguratutako sukalde gozo eta epelean, babestuta; urte korapilatsu haietan kalean zeuden giro politiko ilun eta gogorren murgiltzeko; lehenago diodan bezala naturak berak bilatzen du bidea eta horrela, artea kareharriri tartetik hazitzen den itxuran hezi zen Txato, zailtasunen aurrean kementsu azalduz.

Aldi berean, ezkurak inguru gozoago batera banatu eta sendotu zuen bere gaztaroa lagun artean. Ezagutzen genuen gehientsunok ikaragarri maite genuen, bera zen bezala azaltzen zelako; *naturala*, naturarekin hazi zelako. Maite genuen, bere Herria ezagutzen zuelako, berarekin sufrituz hezi zelako, eta berarekin gozatu guregana arrimatu zelako. Bere hazitze

'Txato', gure 'Txato'



prozesa ez zen inoiz bukatu... beti zuten zer bait ikertzeko edo esateko, horregatik bere jakinduriaren muina eta arrastoa utzi digu; bere euskal zaletasuna... joan zaigun arte hazitzen joan da; baina, non geratu ziren ihes egin behar izan zuten garai haiek, edo Lovainako unibertsitatean ekonomia ikasketak burutzeara, edo hain modu estuan bizitzeko garai haiek, non geratu ote ziren? Horiek ziren artea hazitzen lagundu zutenak, bai horixe. Haitzen arteko artea.

Bizi, lurralde, hizkuntz eta ohitura arrotzak zituen herritan joan zen aberasten bere bizitza. Jose

Mariren jakin minak ez zuten inongo mugarik ezagutzen, gaitasunez betetako landarea zen, txerto guztiak hartutakoa, inguruari moldatzeko prestatua. Hala ere, harrizko gorputza eta gaztanbera (berak esango lukeen bezala) bezalako bihotza zuten gizona genuen, edo nori lagutzeko prest, horrela ezagutu digu bere bigarren herria zuten Tolosan. Denon probetxurako hemen jaso ditugu ezkur haiek ernalduta, edertuta; bere ideiak gauzatzeko aukera izan zuten bertan, entzun nahi zionari zekiena erakutsiz, apaltasunez, lanean buru belarri egunerok. Bere ibil-

dia konpartitu dugunok, bidelagun izan dugu Udaletxean. 1995. urtean Tolosakoan hasi zen zinegotzi, zortzi urtez egon zen bertan, trebetasunak azalean zituen, denetariokoak: eztabaidak leuntzeko trebezia, elkarriketa harturik bere lanaren ardatz eta ezkerreko eskua gako bakarra; eztabaida lehen gai zuten, aldiz, inposizioa onartu ezina... horrela zen Txato, gehientsuenon lagun, adiskide eta tertuliazale.

Beste hainbat bizipenekin ere harrituta uzten gintuen sarritan, bere Maiten herritik zetorrenean bertso saio batetik, gai-jartzaile

gisa aritu eta gero, pozik eta hitz gehiagoren jabe, baina ezerk ez gintuen harritzen, bai baikenekien beste hainbat gaitasunen artean hori ere ziurtasunez eta abileziak egingo zuela. Azitia, apala, hitz azkarrekoa, dotorea... hori zen Joxemari; dotorea batik bat. Presentzia zuen giza semea.

Utzi gaitu gure herri honen sorroan, harri puska, osin, lar eta saskarakaz inguratutik, baina ortzira begiratuz hor aurkituko duzu beti bere begirada eta irrifarra, bere Aitzarte inguruan kabi duten edozein arrano, putre, sai edo zapelatzetan.

Bere ametsak, ideiak eta borroak izango du jarraipena, haziko baitira ezkur haiek eta gero etorriko dira besteak, edozein lur mota dela ere fruitua inguratzen duena.

Utzi gaitu malko artean; enteratu nintzen gau hartan itsaso zabalarri begira entzun nuen berri tamalgarria, mingarria, bortitza; guztiontzat zein maitagarria, izarraz beteriko zerua bezalaxe; benetan maitagarria.

Harkaitz artean egin duzu ibilbidea eta beraiekin bat egin duzu, mugarik gabeko Pirinioetan, gure herriaren etorkizunari so eginez.

Utzi duen bizitzak ez du geldi unerik, bera joan eta handik gutxira beste biloba bat izan du; malkoa eta irrifarra denak batera; aitona joan eta biloba etorri; ezkur berriak zabalduko dira, hauxe da bizitza, aldi berean garrantza da gure bizitza gozo hau.

Mila Esker Txato, zu ezagutze eta ametsak konpartitzeko aukera eman zenigulako.

G Gutunak

GAP programan parte hartu dutenei eskerrak

GAP programako partehartzaileen ohitura aldaketei esker, 58,91 tona CO2 gutxiago igorri dira atmosferara Tolosaldean.

«Ez da ahalegin handirik egin behar, ekintza xumeak baizik» zioen GAP programaren leloak. Eta parte-hartzaileak jabetu dira honetaz. Tolosaldeko biztanleek garraioan, ura eta energiaren kontsumoan, erosketetan eta etxeko hondakinen kudeaketan aldaketa txikiak egitea zuen helburu Nazio Batuen Erakundeak sustatutako GAP programaren baitan. Eskualdeko 20 herritan zabaldu da programa, biztanleen % 3,6ak hartu du parte programa honetan apiritetik uztailera eta jasotako emaitzak oso onak dira.

Euskadin garatu den GAP programaren 4. edizioa uztailaren amaitsu da eta jasotako datuen arabera, Tolosaldean garraioari dagokionez, kontsumitutako erregai kopurua %12,55 jaitsi da eta honek 12.320 litro erregai aurrezteko suposatzen du. Aurrezpen horren arra-

zoiak bi dira: batetik, gidatzeko era hobetu dutela parte-hartzaileek (auto-ilarretan motorra itzaltzeko ohitura hartuz, adibidez, %14,29k) eta bestetik, mugikortasun ereduak aldatu dituztela (esaterako, etxeen %9,82k eguneroko bidaie-tan autoa partekatuzeko ohitura hartu dute).

Bestalde, uraren kontsumoa %7,83 jaitsi dute Tolosaldeko familia hauek, eta horren ondorioz, 1,3 milioi litro gutxiago kontsumitu dira urtean. Arropa-garbigailua astean 4,26 aldiz erabili ordez orain 3,48 aldiz erabiltzera ohitu baitira parte-hartzaileak eta dutxaren batezbesteko iraupena 6 minutukoa izatetik 3 minutukoa izatera pasatu baita. Gainera, ura aurrezteko sistemen erabilera ere igo egin da.

Energia kontsumoari dagokionez, %5,61eko jaitsiera suposatzen dute GAP programan emandako aholku jarraipenak. Ur-berogailuen erabilera hobetu da eta kontsumo gutxiago 113 bonilla inguru jarri dira etxe hauetan, esaterako. Erabili behar ez diren argiak eta aparatuek beti itzaltzeko

neurria hartzea kosta egiten zaie oraindik parte-hartzaileei.

Azkenik, erosketen eta etxeko hondakinen inguruan, ohitura arduratsukoak eta iraunkorragoak hartu dira. Hondakinen kopurua %1,78 gutxitu da, norberaren poltsa edo betiko gurditxo erabiltzeko ohitura hartuz, adibidez (partehartzaileen %22,64k) edo erabili eta botatzeko produktuak erosteko ohitura baztertuz edo gutxituz. Gainera, nekazaritza ekologikoko edo bidezko merkataritzako produktu batzuk erosten hasi da familien %7,55a.

Tolosaldeko udalek euren biztanleek ohitura iraunkorragoak hartzea dute helburu, guztion artean ingurumenaren osasuna hobetzen laguntzeko. Gainera, horrelako ekimenetan parte hartzea benetan eskertzen eta baloratzen da udalen aldetik. Beraz, Tolosaldea Garatzenek, eskualdeko udalen izenean eskerrak eman nahi dizkiete GAP programan parte hartu duten biztanle guzteei.

Garbiñe Mendizabal. Tolosaldea Garatzeneko udal saileko arduraduna.

Z Zurea da hitza info

Sakramentinoetako Laskorain ikastola: Shut up please!

Ingelesko irakasleak hala esaten zigan, klase garaiean elkarrekin hizketan hasten ginenean: shut up, please! (Ixo, mesedez). Beste-ene lana ez eragozteko noski.

Sakramentinoetako Laskorain Ikastola, ikasturte berriarekin berri-ri hasi da goizeko bederatzia aldera auzotar guztiak esna arazten, ustez ikasle txikiak zuzendutako musikarekin.

Auzotar horietako batzuk gauz lan egiten dugu. Errespetatu eskatzen dugu: inongo beste ikastetxeetan ez dut ikusi goizean auzotar guztiak esnatzeko moduan musika jartzen. Tabernetan ere «insonorizazioa» eskatzen duten garai hauetan gutxiago.

Gaur deitu dut Laskorain Ikastolara protesta egiteko: esan didate «ordu eta laurden bakarrik» izaten dela musika hotsa (gezurra bestalde, askotan frogatu dudanez). Zer esango lukete berriak, egunerok goizeko bostetan,

«ordu laurdenez bakarrik» esnatuko banitu?

Itxura denez beraiek musika kentzeko asmorik ez dute, beraz, udaletxeari eskatzen diot zer bait egin dezan. Eskerrik asko.

Tolosarra.

■ Gaur behintzat (Irailak 10) ez dugu musika jasan beharrik izan. Ea irauten duen. Eskerrik asko.

Tolosarra.

Voith-Gorostidiko etxebizitzaren zozketaren ardurak noizko?

Badoaz hilabeteak, Voith-Gorostidiko etxebizitza babestuen zozketa txapuzeroa egin zutenetik. Giza-akatsa izan zela eta, ardurak argitzeko denbora behar zutela esan zuten arduraga gutxi erakutsi zuten arduradunek.

Hilabeteotan izan al dute alkate, notario eta funtzionario txit gorenek ardurak argitzeko astirik? Ondorioen berri emateko asmorik ba al dute? Edota *balones fuera* egiteko aitzakia bat besterik ez zen izan?

Laskibar

Gaur izango dute jaien azken eguna Kalebeheran eta Zizurkilen

Jaiak » Sardinen dastaketa, mus txapelketa, herri kirolak, pilota eta bertso saioak izango dituzte, besteak beste, bi herrietan.

kin dastatu ahalko da. Bazkaria eta gero, umeen pilota txapelketaren eta Pala Txapelketaren finalak jokatuko dituzte. Iluntzean zahargardoa izango da, eta jaiekin amaitzeko, 22:00etan, mus txapelketa.

ERREDAKZIOA

Festa giro polita izan zen nagusi atzokoan Alegian eta Zizurkilen. Lehenengoan Kalebeherako jaiak ari dira ospatzen ostiralaz geroztik, eta Zizurkilen, berriz, asteazkenean ekin zieten herriko jaiei. Bietan ere, gaur izango dute festetako azken eguna.

Kirolarekin hasi zen eguna Alegian, krosarekin, hain zuzen, eta gazte nahiz heldu herrian zehar lasterka ikusteko aukera izan zen. Arratsaldean, bertsoa eta pala uztartu ziren, bertso-palarekin, eta bertso saioaz ere gozatu ahal izan zen, erromeriarekin bukatzeko.

Gaur eguerdian, dantzari txikien saioa izango da ikusgai, eta ondoren, txakolina sardin erree-

Zizurkilen blusak protagonista

Blusak izan ziren atzokoan nagusi Zizurkilen. Herri bazkarian, esaterako, 400 lagun inguru elkartu ziren. Ondoren, jolaserako unea iritsi zitzairen, pentatloia, hain zuzen ere, eta probetako bat asto karrera ikusgarria izan zen. Asto karrera soilik berezia bada, are bereziagoa mozorroturik badoaz parte-hartzaileak, eta hala ikus zitezkeen, ondoren, etorri zen mozorro gaue-rako prestatu baitziren asko. Musikarekin segi zuen jaiak gauean.

Gaurkoan, sardinak eta sagardoa dastatu ahalko dira goizean, eta herri kirolak ere izango dira. Arratsaldean, akrobazia ikuskizuna izango da, eta 19:00etan, Lantzeko zortzikoa. 20:00etan, bukatzeko, *Ostikalariak* emanaldia.



400 lagun inguru elkartu ziren atzo Zizurkilen, herri bazkarian. A. IMAZ



Gazte nahiz heldu lasterka aritu ziren herrian zehar, atzokoan Alegian. I.T.



'Egunkaria'-ren epaiketa prestatzen

'EGUNKARIA AUZIA' » Espainiako Auzitegi Nazionalak azaroan hasi nahi du *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa, eta euskarazko kazetako langile izandakoak atzo Andoainen, Martin Ugalde Kultur Parkean, batzartu ziren, epaiketa prestatzen hasi eta gizartea mobilizatzeko asmoz. *Egunkaria libre* lelopean elkarretaratzea egin zuten batzarraren ostean. *Egunkaria* auziko sumario nagusian Joan Mari Torrealda, Iñaki Uribe, Martxelo Otamendi, Txema Auzmendi eta Xabier Oleaga epaituko dituzte. G.G./A.P.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Banatzaila.** Banatzaile gidaria behar dugu. Tolosaldekoa. Intersatuek dei dezatela 648 00 47 98 telefono zenbakira.

@ **Argazki Lehiaketa.** HITZA Argazki Lehiaketan parte hartzen ari diren argazki guztiak daude ikusgai gure webgunean: www.tolosaldeko-hitza.info

Tolosaldeko komunikazio talde batek
Kazetaritza edota
Euskal Filologian lizentziatuak edo ikasleak behar ditu.

Interesatuek deitu
661 678 817 telefonora



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gizonezko batzuk paladar baten kanpoan zelatan. HITZA



Auto bat urez beteta dagoen Habanako kale batean. HITZA



Auto bat konpontzen kalean. HITZA



Trinidad herriko plazaren irudia. HITZA



Mutiko bat zapata garbitzaile baten bezero. HITZA

Kubari begirada

Hernalde» Mikel Iriondok Kubara egindako bidaia batean ateratako argazkiak erakusten ditu Ostatuan; egunerokotasuna islatzen dute.

IMANOL GARCIA

Mikel Iriondo bi alditan izan da Kuban. Lehenengoan, 2003an, izan zeneko argazkiak zintzilikatu ditu berak kudeatzen duen Hernaldeko Ostatuan. «Kubaren egunerokotasuna eta aldi berean ideo-sinkrasia» islatu nahi izan ditu argazkietan Iriondok. Erakusketa urriaren amaiera arte egongo da ikusgai.

Ohikoa da euskaldunak Kubara joatea eta erakusketa ikusten duenari ezagunak egingo zaizkio bertan agertzen diren egoerak. Bakoitzak bere istorioa du, Kubaren deskribapen txiki bat izango balitz

bezala. *Paladar* izeneko lekuak dira horren adibide. Argazkietako batean gizonezko batzuk ikusten dira etxe baten kanpoan, zelatan. *Paladar* baten kanpoan daude, polizia etorriko ote den zain. Egun baimenduta badaude ere, 2003an legez kanpo zeuden jateak dira. «Bertara eraman ziguten», azaltzen du Iriondok, «baina 50 bat metro lehenago gelditzeko eskatu ziguten. *Paladarraren* kanpoan zeudenak alde batera eta bestera begiratu zuten polizia agertzen zen-edo ikusteko eta arazorik ez zegoela ziurtatuta, sartzeko keina egin ziguten».

Beste argazki batean auto bat ikusten da Habanako kale batean, urez inguratutik. «Kuban euria egiten duenean eurijasa izaten da eta kaleak segituan betetzen dira urez», dio Iriondok.

Asko gustatzen zaion argazkia zapata garbitzailea eta mutilarena da: «Oso bitxia egin zitzaidan agurre batek mutiko bati zapatak garbitzen ikustea. Ez dut uste kubatarra izango zenik mutila, zeuzkan arropa motengatik. Gainera, argazkia ateratzerakoan begiratu egin zidan, gorroto edota handikeria puntu batekin».

Iriondori kubatarrek egunerokotasunean aurrera egiteko duten ahalmena nabarmentzen du: «*Inventar*, asmatu hitza erabiltzen zuten askotan. Arazoren bat sortzen bazitzairen, zerbitu asmatzen dute aurrera egiteko».

Irailak 19, 12:00etatik
Irailak 20, 12:00etara

VILLABONAKO
Olaederra kiroldegian

Billabonara

**24 orduko
FUTBITO txapelketa**

Laguntzaileak:

hitza

Villabonako
Udala



Izen ematea 943 69 44 58 telefonon

(kontaku telefonoa erantzun gailuz utzi)

edo billabonara@gmail.com

helbide elektronikoa.

Prezioa taldekako: 100€

SARIAK: 1.saria 900€ 2.saria 450€

Lo egin edota atsedean hartzeko lekua izango da

Antolakuntzak ez du hartuko bertan

gerta daitezkeen ezbeharren erantzukizunik

Elikagaien Azoka Berezian, postu ugari eta isats gisatuaren usaina

Villabona » Posturik onenaren saria Ramirez Ardoak etxeak eman zuen eta gisaturik onena Ibaieritzek prestatu zuen.

ASIER IMAZ

Irrintzi Elkarteak antolatuta, XIV. Elikagaien Azoka Berezia ospatu zuten atzo Villabonako Errebote plazan. Bertan, ohikoa denez, jende ugari elkartu zen. Antolatzaileek, giroari berotasuna emateko euren postutxo ere zabaldu zuten, pintxo eta edariak banatuz.

Postuak goiz osoan zehar egon ziren zabalik eta erosketak egiteaz gain eskulan itzelak ikusteko aukera eduki zuten Errebote plazan bildu zirenek; etxean egindako botilen postua benetan ikusgarria zuten.

Azoka Berezian guztira 30 pos-

tu inguru jarri zituzten, elikagai mota desberdinekin: ogia, ardoa, esnekiak, gozoak, kontserbak, ez-tia...

Bi lehiaketa

Ikusgarritasuna eta dastamena sari bilakatu ziren atzokoan Azoka Berezian. Alde batetik, inguruko elkarte desberdinen artean XV. Isats Gisatuaren Lehiaketa egin zuten. Denen artean puntu gehien jaso zituen isatsa, Zizurkilgo Ibaieritz elkarteko kideek prestatu izan zen.

Bigarren lehia, Azokako postu onenari zegokion izan zen. Sarien dirua Villabonako Udalak jarri zuenez, epaileen artean Irrintzi Elkarteak kideekin batera, udalordezkariak egon ziren. Irabazleari dagokionez, Ramirez Ardoak etxeak eman zuen lehen saria.

Ondoren denak Behar-Zana elkartera joan ziren bazkaltzera.



XV. Isats Gisatu Lehiaketa eta eskuz egindako botila ikusgarriak. A. IMAZ



Atzo Villabonan izan zen Azoka Berezian postu onenaren saria Ramirez Ardoak etxeak irabazi zuen. Era guztietako elikagaiak izan ziren ikusgai. A. IMAZ



Tolosa-Getaria gaur Kontxako estropadan lehiatuko da

Arrauna » Kontxako Bandera 11:00etan hasiko da jokatzeko. Ordu horretan Tolosa-Getariako arraunlariak irtingo dira.

A. IMAZ

Donostia jokatzeko den Kontxako bi Banderak gaur erabakiko dira 11:00etatik aurrera. Lehen estropadan emakumezkoak ariko dira

eta bigarren goan, bi txandetan, gizonzkoak.

Emakumeek atzo jokatu zuten sailkapen estropada eta bigarren postuan Tolosa-Getaria sailkatu zen, irabazlearengandik 40 ehunenekora.

Lehen postua Galiziako Rias Baixas traineruak lortu zuen. Hirugarren Astillero gelditu zen eta gaurko estropadan Kontxan egongo den laugarren trainerua zumaiarrena izango da.

Hiru txanda borrokatu

Gipuzkoako traineruak ez ziren gustura gelditu lerrotaturiko sailkapen fasea jokatu behar zutelajakitean. Hauek gizonzkoen moduan irten nahi zuten, hau da, banaka banaka eta erlojupekoan.

Donostiako Udalak, antolatzaileak, erabakia hartu zuen eta finalerako 4 txartelak hiru txandatako denbora onenak kontuan hartuta erabakiko ziren. Atzo jokatu zen kanporaketa estropada eta lehen

laurek ikuskizun polita eskaini zuten. Bigarren txandan irten zen faboritoetako bat, Tolosa-Getaria. Zumaiarekin lehia ikusgarria eduki ostean, txanda irabaztea lortu zuten. Azken txandan bigarren faborito nagusia irten zen, Rias Baixas. Galiziarrekiaz Kontxako Bandera irabazteaz gain, aurtien Euskotren Ligan lehen postua lortu dute.

Ziaboga bakarria zegoen eta denbora esanguratsua ikusi ziren bertan: Tolosa-Getaria eta Rias Baixas denbora berean. Itzuleran 5 segundoko aldea lortu bazuten ere galiziarrek, GPSaren arabera, azken txanpan berdintasuna itzuli zen denboretara.

Tolosako azokan giro aparta eta udazkenaren fruituak postuetan

PABLO ALBERDI

Oso animoso hasi eta bukatu zen atzoko azoka eguna Tolosan. Salmentak eta bisitarien kopurua asko igo ziren joan den astearekin konparatuz, eta ikusitako ikusita, erabat udazkeneko giroan sartu garena esan dezakegu.

Eskaintza ere aldatzen ari da. Hori nabarmen fruta postuetan ikusi zen, non gantzainak, matxakanak eta pikua nagusitu ziren. Barazkiak ere aldatzen hasi direla aipatu beharra dago. Egun hauetan Tolosako babarrun berria ugartzen ari da mahaiaetan, eta hauekin, txikoria edota eskarolak ikusten ditugu nobedade bezela.

Perretxiko zerrenda ez zen asko aldatu joan den astearekin alderatuz. Bertako onddo pixka bat, ziza horia eta berrikuntza bezela, gibeldurdin batzuk izan ziren.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares.

Landareak

Azalea	7,00	10,00
Erromeroa	4,00	6,00
Xarbota	4,00	6,00
Zirklamena	5,50	-
Zainzuria	2,80	-
Salbia	1,00	1,20
Dipladenia	10,50	-

BERTAKO PRODUKTUAK

Perretxikoak

Onddoa	14,00	30,00
Gibeldurdina	20,00	-
Onddoak potetan	9,00	-
Ziza horia	20,00	-

Fruta

Konferentzia udarea	1,00	-
Gaztaina	5,00	-
Urta	2,00	3,00
Pikua	3,00	-
Intxaurra	2,50	4,00
Kanela udarea	1,00	-

Barazkiak (sorta)

Ziazerba	1,00	-
Erremolatxa	1,50	2,00
Tipula	0,80	1,00
Azenarioa	1,20	5,00
Baratxuri freskoa	1,50	-
Porrua	1,00	4,00

Barazkiak (kiloa)

Babarrun zuria	12,00	-
Tomatea	2,50	3,00
Ibarrako piparra	4,00	6,00
Tolosako babarruna	10,00	12,00
Bainak	3,00	-

PRODUKTU EKOLOGIKOAK

Perretxikoak

Sagarra	2,00	3,00
Intxaurra	4,00	6,00
Kalabaza	1,60	3,04
Arroza	1,90	2,00
Mermelada	3,00	3,60

Ikasturte berriari ekingo dio Aitzol Udal Euskaltegiak; euskara guztion komunikatzeko tresna bilakatu dadin eskaintza zabala du aurten ere, erraztasun eta aukera ugari emanez.

Euskara, elkar ulertzeko

INIGO TERRADILLOS

Ateak zabaldu dizkio Aitzol Udal Euskaltegiak ikasturte berriari. Eskaintzari dagokionean ez da aldaketa handirik izango, eta ohiko laguntzak eta erraztasunak eskainiz jarraituko dute. Aurtengo ikasturtearen aurkezpenean, hori bai, mezu argia erabili dute, euskarak behar duela izan elkar ulertzeko tresna, eta horretarako, euskara ikasi eta erabiltzeko ahalegin berezia eskatu dute.

Gure inguruan gertatzen den ia guztia, neurri handi batean behintzat, hizkuntzek antolatzen dutela diote Udal Euskaltegitik: «horregatik, hizkuntza bat gehiago geureganatzeak inguruarekiko dugun gaitasuna zabalagoa eta aberatsagoa bilatzen du». Hala, euskara ikasteak hori areagotzen duela azaltzen dute, «euskara euskaldunon hizkuntza delako». Baina, hor sartuko litzateke ahaleginarena, «ez baita musutrik lortzen hizkuntza bat ikastea».

Ikasturte berriari buruzko informazioa zabalatzeko hainbat bide erabili dituzte: hala nola, kartelak, eskuorriak, Internet, sakeleko telefono bidezko mezuak edota hedabideak; eta, aurten faroletan ere ikusgai izan dira panelak. Guztietan ere mezu bera errepikatu dute, hau da, euskara ikasteko ahalegin berezia egin, eta herritarrei matrikulatzeko gonbita luzatuz.

Komunean izan behar duguna

Egungo aniztasunari egin nahi izan diote erreferentzia mezuetan. Hala, ingelesez, gaztelaniaz, arabieraz, frantsesez, portugesez nahiz euskaraz irakurri daiteke *Gu gara*, kalean entzun ditzakegun hizkuntzak, nolabait, irudikatuz. Horien artean, ordea, euskara da gailentzen dena. «Elkarrekin hitz egin behar dugunean, euskara dela komunean izan behar dugun tresna adierazi nahi du, eta, hain zuzen ere, Aitzol Udal Euskaltegiak, euskara irakatsiz, komunikatzeko eta elkar ulertzeko gai izatea ahalbidetzea eskaintzen du».

Eskaintza bide beretik

Eskaintzari dagokionean ez da aldaketa handirik izango, eta eskalduntzen, alfabetatzen eta azterketak prestatzen jarraituko du maila guztietan eta lehengo EGAn, hizkuntza eskakizunekin, ikastaro berezietan, eta aurrez aurreko taldeekin nahiz autoikaskuntzan.

Aurrez aurrekoen kasuan, egunean 2,5 orduko eskolak izango dira, goizez, arratsaldez edo gauez, astelehenerik ostegunera.

Boga Internet bidez

Autoikaskuntzakoak, berriz, 15 eguneko zikloan, 12 ordu eta erdi egingo dira, honela banatuta: Aitzol Udal Euskaltegiak prestatutako unitate didaktikoekin 5 ordu; Boga programa multimedia interaktiboa Internet bidez 5 ordu; mintzasaioan asteen ordu bat; eta tutoretza hamabostean behin ordu erdi.

Autoikaskuntzaren berrikuntza Boga programarekin dator, izan ere, CDen bidez egin ordez, aurreantzean Internet bidez erabili ahalgo da. Beraz, ikasleek nahi duten lekuan eta unean egingo dituzte lanak, hori bai, Internetarako konexioa izatea izango da baldintza bakarra.

Bestalde, mailaz mailako azterketak egiten hainbat urte daramatzate, eta horretan jarraituko dute. Egun maila horiek homologatuta daude, eta ofizialak dira.

Mintzalaguna

Aitzol Udal Euskaltegiak, bestalde, ikasitako praktikan jartzeko aukera ematen du, Mintzalagunaren bidez. «Modu atseginean, klasera joan gabe eta gustuko dena egin, mintzapraktika egitea da asmoa». Asteen ordu bateko saioak izango dira, eta izena eman daiteke euskaltegian bertan edota 605 61 21 25 zenbakira deituta.

Matrikulan erraztasunak

Pasa den urteko kostu antzekoa izango dute eskolek, KPIa baino ez baitute igo, eta diru laguntzek bere horretan jarraitzen dute. Hortaz, aurrez aurreko matrikularen %50 itzuliko zaie, eta autoikaskuntzako %75. Badira salbuespenak, familia ugarietan, esaterako, %100 itzuliko baita. Halaber, HABEren mailetako azterketak gaindituta ordaindutako matrikula berreskuratzeko aukera dago, %100 arte, baldintzak betez gero, beraz, euskara ikastea doan atera lekioko ikasleari.

Euskara ikastera animatzen direnek hilaren 18ra arteko epea dute izena emateko. Informazioa 943 65 10 06 edota 943 65 23 43 telefono zenbakietan edota www.tolosakoudala.net eta www.udaleuskaltegiak.net webguneetan jaso daiteke.



Mikel Uzkudun Aitzoleko zuzendaria, Ainhoa Etxeberria euskaraz zinegotzia eta Iñaki Azaldegia euskaraz teknikaria. i.r.

«Euskara ikasteko ahalegina egin dezaten eskatzen diegu herritarrei»

MIKEL UZKUDUN » Aitzol Udal Euskaltegi zuzendaria

Tolosa » Beste urteetan baino azkarrago ari da jendea euskara ikasteko izena ematen, «agian krisiaren eraginez».

I. TERRADILLOS

Martxeli Sagastumeren lekukoa hartu du Mikel Uzkudunek eta bera izango da aurreantzean Aitzol Udal Euskaltegi zuzendaria.

Nola sentitzen zara erronka berriaren aurrean?

Orain arte idazkari akademikoa izan naiz, beraz, ez da irakasle izatek zuzendari izatera bezalako apuso handia izango. Gertutik jarraitu dut prozesua. Hori bai, arduraldetik aldaketak izango dira. **Nola dator ikasturte berria?**

Orain arte egindako lanaren jarraitzea izango da. Aurrez aurreko material didaktikoak eta Boga programa, berriz, indartzen eta sendotzen jarraituko dugu. Boga multimedia programa finkatuko



i.r.

dugu, orain Interneten erabiltzeko berrikuntzarekin; eta bestalde, unitate didaktiko berriak erabiliko ditugu, guk prestatuak.

Zuek prestatutako materiala, beraz, erabiliko duzue ikasturte honetan.

Bai, azken lau urteetan egokitzten eta prestatzen egon gara materiala, eta orain erabiltzeko prest dago. Gure asmoa, gainera, material hori nahi eta behar duenaren eskura jartzea da, publikatuz edo, baina helburu hau zehaztu gabe dago oraindik.

Autoikaskuntza nolako harrerari da izaten?

Hasieran jendea mesfidati agertzen zen aukera berri honen aurrean, baina urtetik urtera gorakada nabari da. Hone helburua ikasleari euskara ikasteko nolabaiteko independentzia ematea da, lotura finkorik gabe.

Zein da aurtengo mezu nagusia?

Guk ahalegin bat eskatu nahi diegu herritarrei. Hainbat hizkuntza entzuten ditugu kalean, baina guztion artean komunikatzeko hizkuntza euskara behar luke izan, eta hori horrela izateko ahalegin bat egin behar da. Eta gu hor sartzen gara, ahalegin horren bidelagun. Euskara ikastea eta menperatzea eskaintzen dugu, eta gainera, erraztasun handiekin.

Beste urteekin alderatuz nolako ari da izaten matrikulazioa?

Matrikulazioa aukera zabaldu dugunetik jendea erruz ari dela gerturatzen ikusi dugu, beste urteetan baino azkarrago. Ez dakigu zehatz mehatz zergatik den, baina agian krisiarengatik izan daiteke; horrelakoetan ikasketak egiteko joera ugari gertatzen delako.

» DATUAK

Eskaintza

- Euskalduntzeko eta alfabetatzeko maila guztiak.
- Aurrez aurreko taldeak: asteen 8 ordu eta tutoretza.
- Autoikaskuntza: euskaltegi material didaktikoak eta Boga programa; tutoretzak bakarka hamabostean behin; mintzasaioak asteen ordu bate.
- Mediateka, material mailegua: liburuak, prentsa, aldizkariak, DVDak...
- Azterketak prestatzeko aukera: 1. maila, 2. maila, 3. maila, EGA.

- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, IRALE, Osakidetza.
- Titulu homologatuak maila guztietan.
- Ikastaro bereziak eskaerari egokitu: enpresa eta ikastetxeetan, inguruko herrietan...

Izen-ematea

- **Matrikula egiteko epea.** Irailaren 18ra arte, Aitzol Udal Euskaltegi (Rondilla kalea, 34). Astelehenerik ostegunera, 09:00-13:00 eta 16:00-19:00; ostiralean, 09:30-14:00.

- **Laguntzak.** Tolosako Udalak (eskualeko gainontzeko udal gehienez dituzte diru laguntzak) %50 itzultzen die aurrez aurrekoari, eta %75 autoikaskuntzakoari. HABEren mailetako azterketak gaindituta, ordaindutako matrikularen %100 berreskuratzeko aukera dago, baldintza guztiak betez gero.
- **Informazioa.** 943 65 10 06 eta 943 65 23 43 zenbakietan, edo www.udaleuskaltegiak.net eta www.tolosakoudala.net helbideetan lortu ahalgo da.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 034. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Tolosa.** La Jara Extremadurako Etxearen Kultur Astearen baitan, 12:00etan Extremadurako meza Flor de Jara taldearekin, 13:00etan toka eta igel txapelketak haur eta helduentzat, 14:30ean bazkideen bazkaria, 16:30ean sari banaketa, 19:30ean Gasteizko Big Band Berri taldearen saioa Berdura plazan eta 21:00etan amaiera ekitaldia.
■ **Villabona.** Irrintzi elkarteak bere XXVIII. urteurrena ospatzeko bazkaria egingo du Ongi Etorri jatetxean (Zaku) hilaren 19an. Izen-emaitea, jatetxean.

Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, gaur: *Harry Potter y el misterio del principe*, 17:00etan, eta *El primer*

dia del resto de tu vida, 19:30ean eta 22:00etan. Bihar (ikuslearen eguna) 20:30ean, *El primer dia del resto de tu vida*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.
Bihar
■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9. 943 67 51 18.
■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.
■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanena eta iritzien erantzunik.

Enara Larrartek Normandiako argazki bat bidali digu HITZA Argazki Lehiaketarako, eta Ura Iturralde, berriz, Nepalen ateratakoa.

Normandia eta Nepal



NORMANDIA • Normandian izan da oporretan uda honetan Enara, eta argazki hau bidali digu lehiaketarako: «Etratat izeneko herrixkaren inguruan akantilatu pargabe hauek aurkitu genituen».

ENARA LARRARTE

A Agurrak



Zorionak!

Maren Ayerza (Amezketeta).
Bihar urtebete.
Zorionak etxekoan partetik.



Zorionak!

Maddi Lopetegui Serrano (Ordizia).
Bihar 7 urte. Zorionak Ibarrik aitona, amona, izeba-osabak eta, batez ere, lehengusuen partetik.

NEPAL • Aurten oporretan Nepalen izan gara hilabetez, zoragarria benetan. Kathmanduko auzo txiki batetik oinez gindoa-zela honako ume hauek topatu eta beraien jolasean geratu ginen euripean. Paisaia oso polita da eta bertako jendea ere oso atsegina eta beraien hitz egitea, haiengana hurbiltzea eta beraien ohi-turak ezagutzea izan da bidaiaren honen xarma. Muxu bat bidaltzen diet denei hemen-dik». URA ITURRALDE (TOLOSA)



agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



bidali opor
hauetako
argazkiak!



sari
mundialak



NORA BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo
HITZAren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara